

B

BARREN



**Anton Piñel,
Mendaroko gautxoa**

**Aurten ere
apuntatuko al gera?**

**Bai! Dakiguna
praktikatzeko
eta ez dakiguna
ikasteko**

**Eta, gainera,
doan da**

Eman izena urriaren 10a baino lehen!

Gurasoak eta kirola

Aurreko batean, Donostiako Tenis Elkartean (Ondarretan) izan nintzen infantil mailako (12-14 urte bitarteko gaztetxoak) Euskadiko Tenis Txapelketaren azken fasea ikusten. Gaztetxoak tenisean edo beste kirol batean aritzen ikustea gustuko dut, baina bertan aurkitu nuen panoramak erreflexiorako atea ireki dizkit. Funtsean, bertan ikusi nuena kirolari suposatzen zaizkion balore eta onurei ostikada galanta izan zen. Eta oraindik ere ostikada handiagoa gaur eguneko pedagogiak haur eta gaztetxo-en heziketarako ezartzen dituen gomendioei.

Gaztetxoek txotxongilo hutsak ziruditen gurasoen kontrolpean. Etengabe aita eta amari begira, horien oniritzia jasotzeko, partidu ostean bronka edo koka-kola bat egongo den aurrekusteko, etab. Ez nuen lehiaketaren urduritasuna nabaritzen, baizik eta gurasoei huts ez egiteko ardura. Gurasoak alaba edo semea markagailuan aurretik zihoanean pozez gainezka agertzen ziren, burua tente-tente zutela alde guztietara begira. Aldiz, gauzak okertzen zirenean aurpegi eta keinu txarrak nagusitzen ziren eta "¡Pero que haces!" bezalako oihuek animoak eta aholku positiboak ordezkatzeko zizuten. Tenislari gazte horiek gurasoen inbertsio bat ziruditen. Batzuek Telefonicako edo Iberdrolako baloreak erosten dituzten bitartean, beste batzuek beraien seme-alaben "kirol etorkizun profesionalen" inbertitzen dute. Goraino ekipatzen dituzte: Federer edo Nadalek erabiltzen duen erraketa, zapatila onenak, bisera, eskuturrekoa, hamar erraketa

eramateko Wilson poltsa eta deskantsuetarako platano eta barrita energetikoa!!! (Nadalek deskantsuetan Doner Kebab bat jango balu Donostiako Tenis Elkartean eta antzeko tenis klubetan Kebab-ak saltzeko postuak negozio galanta izango lirateke...).

Gurasoek guraso eta hezitzaile izan behar dute, eta ez beraien seme-alaben sasi manager edo agente. Kirol jarduera heziketa egoki baten konplementua izan daiteke, beti ere gurasoen partetik inplizituki edo esplizituki ia ezinezkoak diren helburuak bilatzen ez badira.

Ander Oñederra



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitze gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Gurasoek guraso eta hezitzaile izan behar dute, eta ez beraien seme-alaben sasi manager edo agente"

ANDER MUJIKA OPORRETAKO ERRETRATUEN ZOZKETAN SARITUA!

MARTIENA nekazaletxean bi lagunentzako asteburua irabazi du.

ZORIONAK!

Elgoibartarren oporretako erretratuak jarri ditugu interneten



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net



IVAN LENDINEZ

SURFLARIA

“Sekulakoa
izango litzateke
Australiara joan
ahal izatea”



Ivan Lendinez elgoibartarra da, baina, ahal duen guztietan kostaldera joaten da olatuen bila. Bodyboard egiten du hamabost urte zituenetik: taula hartu, aletak jantzi eta gustura ibiltzen da kresal artean. Itsasoari errespetu handia eduki behar zaiola dio surflariak, baina, horrekin batera, inguruan dabilen jendearekin ere kontuz ibili behar dela. Euskal Herrian olatu onak badaude ere, bidaiatzea du gustuko mutilak: Australiara joatea nahi du. Baina horretarako, gogoia baino gehiago, dirua behar da, eta ez da erraza aurrezte. Bitartean, bertako olatuez gozaten jarraitu beharko du: hori bai, udan eta neguan, neguan ere primerako olatuak daude-eta.



Noiz hasi zinen bodyboard egiten?

Hamabost urte inguru nituenean, lagunekin hasi nintzen bodyboard egiten. Debara joaten ginen olatuak hartzera. Baina ez nuen irakaslerik eduki: nik neuk nere kabuz ikasi nuen.

Elgoibarkoa izanda, faitan botatzen duzu itsasoa?

Elgoibarkoa naiz, bai, eta Gasteizen ikasi dut, eta han ere itsasoa urruti geratzen da, baina tarte bat daukadan bakoitzean uretara joaten naiz.

Euskal Herrian bakarrik ez, kanpoan ere ibili zara taularekin...

Olatuak daudenean mugitu egiten naiz: Kanariar irlotara eta Marokora joan naiz, besteak beste. Dirua daukadanean kanpora joaten saiatzen naiz.

Errespetua eduki behar zaio itsasoari?

Bai, errespetu handia eduki behar zaio itsasoari. Pixkanaka-pixkanaka hasi behar da, fondo fisikoa hartzen joan behar da, eta zuk ikusten duzu zer maila eman ahal duzun.

Entrenamendua behar da bodyboard egin ahal izateko?

Besoak eta hankak landu behar dira taularekin ibiltzeko; baina, batez ere, igerian egin behar da, asko gainera.

Zertan pentsatzen duzu itsasoan, olatuaren zain zaudenean?

Lasai egoten naiz, gustura. Bueno, olatuak oso handiak badira ez hain lasai [barrez]. Baina, uretan zaudenean kontzentratu egin behar da, olatuekin pentsatu. Gero, neure buruarekin gustura ateratzen naiz itsasotik.

Inoiz hartu duzun olaturik onena nongoa da?

Olatu onak non dauden sekretua izaten da baina... hemen Lemoizen, oso leku ona daukagu, eta Zumaia inguruan ere oso leku onak daude. Espainiako estatuan, Euskal Herrian daude olatu onenak.

Konpetitza ala zure kasa ibiltzea nahiago?

Aurreko urtean hasi nintzen lehiatzen, baina

dirua behar da: sponSORra behar duzu. Baten atzetik nabil, eta ea zortea edukitzen dudan. Azken batean, lehiatzeko gogoia baino gehiago, dirua behar da: zirkuitu oso bat egiteko diru asko behar da. Hala ere, herrialdeko txapelketak ere antolatzen dituzte, eta horietan parte hartzeko, nahikoa da federatuta egotea, ez da dirurik behar.

“Udan bakarrik aritzen bazara, hurrengo udarako praktika galtzen duzu, ahaztu egiten zaizu”

Eta herrialdeko txapelketaren baten parte hartu duzu?

Donostiakora joan naiz aurten, baina olaturik ez zegoela-eta, bertan behera geratu zen. Izan ere, itsasoa bere kabuz doa, eta berak nahi duenean sortzen ditu olatuak.

Hasiberria den bati zer gomendio emango zenioke?

Konstantea izateko eta ez uzteko. Hobby ona da, bizitza osasuntsua eta jende jatorra dago inguruan. Baina neguan eta udan sartu behar da uretan. Jendeak surfa eta bodyboarda udarekin lotzen ditu eta hori aldatu egin beharko litzatekeela uste dut. Neguan hobeto praktikatu daiteke udan baino. Bakoitzak ikusiko du zer maila duen, eta olatuen arabera batzuetan ezin izango da uretara sartu. Baina konstantzia ezinbestekoa da erritmoa hartzeko. Bestela, udan bakarrik aritzen ba-

zara, hurrengo udarako praktika galtzen duzu, ahaztu egiten zaizu.

Egunero begiratzen duzu mareen taula?

Mareen taula, internet, haizea... eguraldiaren gizona ematen dut.

Denborapasa garestia da bodyboarda?

Lana egiten dut, mekanikoa naiz, eta ez daukat beste inork baino diru gehiago. Taula, jantzia eta aletak behar dira, uste dut edork duela eskuragarri kirol hau: ez da kirol sektorioa nahiz eta batzuk hala pentsatu. Edonork praktikatu dezake.

Itsasoa zaudenean, olatuak besteko arriskua dauka zure alboan dagoenak, ezta?

Idatzi gabeko arauak daude horretarako, errespetua behar da. Ezkerretik datorrenak lehentasuna dauka eta olatuaren zain denbora gehien dagoenak ere bai. Baina eztabaida asko egoten da horren inguruan. Kanpoko jendea etortzen da eta ez dute errespetatzen, eta gu geu ere kanpora joaten gara, eta moldatu egin behar izaten dugu. Hala ere, orain hasi den jendearen artean ordena bat mantentzen da, bestela kaosa litzateke. Udan, metro bateko olatuak daudenean, denok egin nahi dugunean surfa. Imaginatu, 50 lagun uretan, eta olatua bakarra izatea... Patxadaz hartu behar dira gauzak. Ni neu hala saiatzen naiz behintzat.


Zein da zure hurrengo helburua?

Bidaiatzea nahi dut, ahal dudan gehien bidaiatzea. Kanariar irlotara eta Marokora joan nahi dut orain, baina, Australia ezagutzea da gehien gustatuko litzaidakeena. Ingelesa ikasi eta bekaren bat lortu beharko dut, edo trukeren bat egin... ikusiko dugu. Sekulakoa izango litzateke Australiara joan ahal izatea.

Eta bizitzeko Australia ala Euskal Herria?

Duda gabe, bizitzeko gustukoena Euskal Herria. Euskalduna naiz, eta ederki bizi naiz hemen.

Iragana etorkizunari begira



Eraikin berriak orain dela ehun urte

Karitateko Alabek 130 urte eman dituzte San Lazaroz arduratzen

Elgoibarko hiriguneak egundoko aldaketa egin zuen XIX. mendeko azken laurdenetik XX. mendeko lehen hamarkadara. Erdi Aroko harresi eta ate gotortuek traba egiten zioten hedatzeko bidea hasi zuen herri modernoari, eta poliki-poliki bota egin zituzten.

Ate gotortuek gurdia eta diligenziak pasatzea eragozten zutelarik, kendu egin zituzten. Bestalde, Ermuaran edo San Bartolome eta Ferria edo Errosario kaleetan zeuden arku gotortuak eta kale bietako harresiak ere bota zituzten, higiene arazoak argudiatuta.

Izan ere, haizea eta eguzkia osasuntsuak zirela ikusita, horma sendotetan leihoak eraikitzea nahi zuten herritarrek, naturako premiazko elementuok etxe barruraino sartzeko.

Aldi horretan eraikin publiko gutxi egin ziren, eta garrantzia ingeniari-tzalanek izan zuten. Hemen ere modernizazioaren zantzuak ikusten dira hiritarren ongizateraren zebitzurako egindako eraikinak direlako: osasuna eta pobreei babesa (ospitalea), komunikazioa (trena), elikadura (hiltegia) eta hezkuntza (eskolak) eskainiz.

Ospitale berria

1868ko apirilaren 21ean, Joan Luis Iriondo Elgoibarko alkate zela, udal batzarrean ospitalea zabaltzeaz edo diseinu berriko etxe bat eraikitzearen komenentziaz hitz egin zen; izan ere, zegoena oso zaharra zen. Handik bi hilabetera egindako bileran eraikin berria-

ren aldeko apustua egin zuten agintariek, gaixo eta ezindu pobreek toki osasuntsuagoa eduki zezaten. 1868an eraiki zen ospitale berria Santiago Sarasola Bergarako arkitektoa obretako zuzendari zela, eta Gervasio Barrene-txea, kontratista.

Sarasolak 1869ko apirilaren bate-rako bukatzeko konpromisoa hartu zuen, eta horrekin batera, ospitale zaharreko eta Olasoko eliza izandakoaren materialak onartu zituen.

Hogeita hamar urte geroago eraikinak honako banaketa zuen: erdian solairu nagusiak, sotoa, gela handi bat, erizaindegia, jangela eta sukaldea; bigarren solairuan emakume gaixoen gela eta batzar gela; eta hirugarren solairuan, gaixotasun kutsakorrentzako bi gela eta ganbara. Eraikinaren ekialdean kapera eta etxearen eranskina

zeuden, mojen jangela eta despentsa zati nagusian; bi gela handi, bi txiki eta ganbara bigarrean. Eta eraikinaren mendebaldean, eskola.

Hiru moja Madrildik

Ospitale berriak eta herriak giza mailako inbertsioa merezi zutelakoan, Udalak, Ignazio Ibarzabal Iriondoren, Madrilén bizi zen eibartarraren bitartez, Karitateko Alaben arduradunarekin hitzarmena egin zuen eraikin berriaren martxaz arduratzeko.

San Lazaro erakundeaz arduratzeko Madriletik etorri ziren hiru moja 1869ko uztailaren hasieran. 130 urte elgoibartarrei eskaini ondoren, 1999ko irailaren 27an, Paulko San Bizenteren Egunean, San lazaron geratzen ziren azken lau mojei agur hunkigarria egin zieten.



Madala aldea.

San Lazaro egoitza gaur egun

Begoña Mugerza

Administraria



“Bertakoek herriko egunerokotasunean hartzen dute parte”

Egoitza sortu zenetik hona, zer aldaketa eduki ditu?

Erresidentziako eraikin berria 1986ko urtarrilean inauguratu zuten. 50 lagunen-tzako lekua zuen, euren kabuz moldatzen ziren pertsonentzako. Gerora, elkarlanerako sinatutako hainbat hitzarmeni esker, baldintzak aldatu egin dira. Gaur egun San Lazaron onartzen diren pertsonak mendekotasuna dutenak dira.

Kudeaketa aldetik ere aldaketa gertatu da...

San Lazaro sortu zenean ospitalea zen, baina orain zaharren egoitza da, eta hasiera-hasieratik udal-zentroa da. Beraz Elgoibarko Udalaren menpe dago. 1869an udal plenoan erabaki zuten Karitateko Alabak mojak arduratzea kudeaketaz, baina handik urte batzuetara, 1980an, beste osoko bilkura batean zentroa kudeatzeko organismoa sortzea pentsatu zuten: hala, San Lazaro Zaharren Egoitzako Fundazio Publikoa sortu zuten.

Mojak 1999 urtean joan ziren, orain zein motatako langileak daude egoitzan?

Administrazioaz eta kudeaketaz ardurazten direnak erresidentziak berak kontratatutakoak dira, eta gainerakoak azpikontratutako enpresa batekoak, urtero Fundazioak lehiaketa bidez kontratatzen duen enpresa batekoak.

Nolakoa da egun bat San Lazaron?

08:00etan garbitasunarekin hasten gara, eta 09:30ean gosaria ematen zaie egoitzan daudenei. Ordurako guztiak jai-kita egoten dira. Goizean zehar hainbat ekintza egiten dituzte: eskulanak, berbaldiak, memoria lantzeko entrenamenduak eta irakurri eta idazteko taldeak, besteak beste. 12:00etan bazkaldu egiten dute, eta 16:30ean meriendatu. Arratsaldean jolasak egiten dituzte eta iluntzean, afaltzeko bi txanda egiten ditugu: 19:30ean lehena, eta 20:30ean bigarrena.

Orain 48 ohe dituzue, ez da txiki xamar geratu zentroa?

Kontuan eduki behar da hasieran San Lazaro euren kabuz moldatzen ziren pertsonentzako zela, eta, egun, bertan ditugunen %87k mendekotasuna dute. Askok gurpil-aulkia behar dute eta egokitzapenak egin behar izan ditugu araudia betetzeko. Hala, espazioak txikiak geratu dira. Baina nire ustez, kokapenaren aldetik primeran dago egoitza. Izan ere, herrigunearn geratzen da, eta herriko bizitza sozialean guztiz integratuta dago. Bertan daudenek, mugak eduki arren, Elgoibarko egunerokotasunean hartzen dute parte. Hala ere, argi dago, espazio zabalagoak nahi izanez gero, beste toki batekin pentsatu behar dela.

30.000

Pertsona nagusiei laguntzeko diru-laguntza eman dio Kutzak Elgoibarko San Lazaro zaharren egoitzari. Orain dela bi urte ere eman zen laguntza hori: orduan 50.000 euro izan ziren emandakoak, orain 30.000 euro.

Orain bi urteko laguntzarekin etxea barrutik pintatu zutela azaldu du egoitzako administraria den Begoña Mugerzak. “Ekipamenduaren inguruko premiak sortu dira orain, eta horiei erantzuna emateko helburuarekin eman ditugu 30.000 euro”, azaldu du Kutzako Gizarte Ekintzako arduradun Sabin Unzetabarrenetxeak.

Motordun oheak erosteko asmoa dutela azaldu du Begoña Mugerzak, baina horiek ez dira berrikuntza bakarrak: “Orain ohe aktikulatuak ditugu, baina gero hamar bat motordun ohe erosiko ditugu; hau da, gora eta behera ibiltzen direnak, eta gainera elektrikoak. Horrekin batera, butakak ere erosiko ditugu. Hemen ditugunak ezinduek dira eta menpekoak, eta erosoago egoteko aulki egokiagoak erosiko ditugu. Bi grua ere erosiko ditugu, eta, azkenik, guk daukagun diru apur batekin eta laguntza honi esker, erizaintzako armairua erosiko dugu botikak-eta gordetzeko. Armairu bereziak dira: dena ondo ordenatuta edukitzeko eta giltzapean”.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Amestu, gozatu, aldarrikatu, izan aske

Gaztiak gera, mendixa, parrandak, antzerkixa, musikia, liburuak, plaia, neskak, mutilak, zerbezia, kalimotxua, kontzertuak... gustatzen jakuz. Bakoitza mundu bat gera, anitzak gera, baina gauza batek batzen gaitu. Gaztiak gera!

Badittugu eziñegonak, badittugu ametsak eta proiektuak batzuk gure kabuz beteko dittugunak, baiña beste batzuk bestiekin batera aurrera etaratzeko gogoz gaudenak. Horretarako da Elgoibarko Gazte Asanblada, danok elkartzurik bakoitzaren hitzak bestiarekin haina balio daban asanbladia, danon amets eta proiektuak batera aurrera eramanez Elgoibar kolorez betetzeko balio daban gunia. Animatu, amestu, gozatu, aldarrikatu eta asanbladetan parte hartuz izan aske! Barriak guztiak asanbladak 22:30ian gazte-xian.

Elgoibarko Gazte Asanblada ☪

San Lorentzoko bidia argirik ez dau bihar

Aurreko asteko BARREN irakurtzen, alar-ma gorrixan argixa piztu jata 11. orriko kexa bat irakurtzian. Atentzia deitu ditzuten artian datorrelako, ze galdera edo sugerentzien artian guztiz normala iruditu jatan. Kexak laga didan zaporria honakua da: zela leike ni San Lorentzo baillaran illunak harrapatzen nauanian pasiatzeko argi artifizialik ez eukitzial Pertsonalki nahiko kexa berekoia iruditzen jata, eta neurri baten, arrisksua. Pentsakera mota hau izan ohi da dana egiña eman behar diguten bizimodu erosuegi honen isladia; Elgoibartik Karakateko igoeria ere ez da oso komodia, baina funikular bat jartziak xarma guztia kenduko lioke. Nik San Lorentzo baillarako enpresa baten egiten dot lan, eta egu-

nero-egunero oiñez juten naiz lanera (negu partian illunetan), 11 minutuan, bakarrik, ixilpian nere pentsamentuetan murgilduta. Ibar Txiki parian (norbaitek galdetu al die bertokueri asunto honetaz?) goizero-goizero San Lorentzora pasiatzera juten diren bi emakumeekin gurutzatzen naiz (7:50 bueltan datoz. Hauek juanekua gauaren ilun beltzenian egingo dabe, baina nik pozik ikusten ditudut).

Ibar Txiki baserri ondok pasatzen naiz beti fijaszen naiz atzekaldian daukan baratzian eta behi beltza eta bere zezenkua dauden zelaixan. Batzutan pentsatzen jartzen naiz ia zenbat denbora iraungo daban honek horrela gure udaletxe maiteak zonalde hori etxez josi baiño lehenago, eta piskat tristetzen nau horrek... Azken fiñian, baillaran zihar farolak jarri leikez, bai. Jende gehixago ibilliko zan pasiatzen eta ordu gehixotan. Biharbada baillaria erakargarixagua izango zan jendiantzat eta bertan bizitzeko ere hobeto egongo zan preparauta; azken fiñian herritik oso hurbil dago. Zergaitik ez beste etxeko bat (baillaran badaukagu daganeko munstrotzar berri bat orain dala pare bat urtetik)? Akaso espalo edo azera bat egin biharko litzake, ze kotxiak gertuegi pasatzen dira oiñez guazenenian. Aparkaleku batzuk ere jarri beharko gendukez bidian zihar, ze nun aparkauko dogu bes-tela...

Ah! Eta Beraseta bidian ere ez dago argirik, eta ezta ere... eskerrak elizako kanpaiek gauak argituko dizkigutela *per secula seculorum*...

I.A. ☪

Salbuespen egoerari stop!

Gatazka bere gordintasun osoan bizi dugun honetan bide errepresibo eta polizialen aldeko apustua, ilegalizazioak eta demokra-

ziaren eskatea dira espainiar gobernuaren errezeta. Ezker Abertzalearen aurkako ofensibak badu funtsesko arrazoi bat: guk defenditu eta proposatzen dugun alternatiba mapa politikotik ezabatzea. Independentzia eta Sozialismoaren aldeko indarrak desaktibatu nahi dituzte. Une politiko honetan autodeterminazioa defendatzen duena desagerrarazi, alternatiba bakarra agertuz: Espainiako konstituzioa. Konstituzio horren harira pakto berri bat sinatu nahi dute PSOEk eta PNVk, beste 30 urtetan denak berdin jarrai dezan. Horregatik ilegalizatzen dituzte Ezker Abertzaleko erakundeak, horregatik debekatu eta jipoitzen dute manifestaldietan; horregatik atxilotzen dituzte militanteak; horregatik torturatu; horregatik erakusten dute paregabeko krudelkeria euskal preso politikoei.

Ezker Abertzaleak proposamen politikoa jarri zuen orain dela urte eta erdi negoziazio mahaian: marko politikorako proposamena. Proposamen hori defenditu eta zabaltzen jarraituko dugu, egoera demokratikoa ahalbidetzen duelako Euskal Herriko. Aipatu nahi dugu hemen frantziar gobernuak eman duen jauzia Batasuneko militanteak atxilotuz. Argi adierazi du euskal arazoa bere arazoa ere badela, eta bizi dugun gatazkan arduradunetako bat bera dela.

Erantzuteko unea da hau, eta horregatik gaur, barriak, itxialdia burutuko dugu merkatu plaza gainean, egoera hau salatzen.

Larunbatean eguerdiko 13:00etan kontzentrazio batekin emango diogu amaiera itxialdiari eta arratsaldean, 16:00etan Bilboko manifestaziora joateko autobusa izango da. Salbuespen egoerari aurre egiteko garaia da. Denok Bilbora!

Elgoibarko Ezker Abertzalea ☪

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Sugar Etxaniz

Aupa, Piru, oporrrak eta jaiak pasatuta, betiko errutinara bueltatu gaituk; lana, arazoak, BARREnera idatzi beharra... baina, bueno, aurrera bolie!



Arkaitz Irureta

Ba bai, ostera be bueltan. Irailleko planek arnas berrixa ematen jauek nere bizitzari, eta egunak moztian negua ate joka igartziak demaseko ilusia egitten jiak.

BARREnera orain dela gutxi azaldutako albiste baten harira, Udalak abenduan Madalako parke eta inguruetan hasi nahi dituen eraberritze lanen ondorioz desagertuko den petrilaren defentsan pegatak atera zituztela aipatzen zuan.

Jaixetan Madalatik urten ez, eta orain berriz ere hara bueltan! Ez dok ez leku txarra; izan ere, San Frantzisko kalia hazitakua nauk. Zuhaitz, lorategi eta kulunpixuekin beteta jauan orduan Madalako parkia. Gero esan duan bezela gaztetxia ere okupatu juen bertan. Ondoren, ezertarako balixo ez daban iturri bat, eta iñoiz erabili ez diran kumunak ere egin jaittuen norbaitten kapritxo bere urtemugan; funtzionatzen juan lokala kendu eta erabillera kontuan hartuz gero historiako inbertsio garestixena egin juen!

“Elgoibarren aterpe publikoen gabezia handia zagok”

Nik ere zerbait esan nahiko nitek, baina ez petrilari buruz hain justu. Madalako parkea gure haurtzaroan herriko gazteekin konpartitzen genian. Orain berriz umeak eta gurasoak bai, baina gazte gutxi. Eskerrek jai batzordeak egiten dian lanari, oraindik gozatu zezakeagu kultur jardunaldi, joko, herri bazkari, txapelketa eta abarrez.

Udalaren proiektua pixka bat gainbegiratuta, ikusi zitekek orain dagoen karpa gauzeztan hori errespetatzen dela. Eskenatoki baten zerbitzua egiteko erabateko aldaketa beharko likek. Gero bankoak eta umeen parkea ere luzatzera doazela zirudik. Logikoena litzateke kendu eta ipini egiten errazak izatea, eta ez behin betiko jartzea.

Beste galdera bat askotan egin zioat nire buruari. Non jolasten ditek Elgoibarko parkeak betetzen dituzten txikiek euria egiten duenean? Ez al litzateke ondo egongo estalpe mugikor bat, toldo moduko zerbait, eguraldiaren arabera kendu eta ipini litekeena eskenatoki aurreko hutsune horretan? Joko handia emango likek umeak jolasteko euria denean, kontzertuak edo ekitaldiak antolatzeke, azokak edo beste mila gauzatarako. Elgoibarren aterpe publikoen gabezia handia zagok. Ze begitantzen zaik?

“Udazkenetik udaberrira lokal publiko itxixen faltia igartzen juat”

Halere, Madalako parkia jendez lepo egoten dok udako arratsaldietan eta zer esanik ez jaixetan txosna ingurua, baina esaten duan bezela udazkenetik udaberrirako tartian lokal publiko itxixen faltia igartzen juat neronek ere. Adibidez, batzuetan polikiroldegiko rokodromo koltxonetak umez gaiñezka egoten dittuk.

Esan beharra juat, halaber, herrixa petonala egitiaren ideia asko gustatu jatala, osasuna, mugikortasuna, jendiaren arteko erlazua eta aldaketa klimatikuaren mehatxua hobetuaz.

Nere ustez, eginbiharra bikoitza dok: interesa dakan edozeiñek ideiak bota eta udaletik zerbait bideragarria egin, jendiaren eritxiaz eta danon etorkizuna kontuan hartuta.

la azkenian zerbait txukunaz disfrutau ahal dogun danok.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gripearen kontrako kanpaina jarri du martxan Osakidetzak.

Hartuko duzu gripearen kontrako txertorik?



Jesus Martin

56 urte, langilea

Ez. Beste urte batzuetan hartu izan dut, baina aurten osasunez ondo nabil eta ez daukat beharrik. Nire amaginarreba gaur bertan eraman dut txertoa jartzera. Ez dago horrelakorik!



Simon Paredero

56 urte, jubilatua

Ez. Ez dut inoiz gripearen kontrako txertorik hartu izan, eta neguak ondo pasatu izan ditut. Hori jende nagusiarentzako da, batez ere. Egunen baten, akaso, hartuko dut.



Txomin Mendez

68 urte, jubilatua

Ez. Txertoak ez zaizkit gustatzen. Hala ere, txertoa hartzen duen jendea gustura dago, badijadi efektua egiten duela. Nik negua primeran pasatzen dut, ez dut griperik hartzen.



Bittor Arrieta

82 urte, jubilatua

Bai, jakina! Urtero hartzen dut gripearen kontrako txertoa, eta sekulako aldea igartzen dut. Lehen urtero hartzen nuen gripea, baina orain negu osoa ez tulik gabe pasatzen dut.

10
eko
TXIKIAN



**GORKA
INTXAUSTI**

Komertziala

1. Herriko txokorik gustukoena?

Mintxeta ingurua gustatzen zait. Igerilekuekin eta saskibalo kantxarekin oso ondo geratu da.

2. Azken aldian egin diren obretatik, zein izan da astakeriarik handiena?

Santa Ana kaleko etxebizitzak. Herrirako sarrera dela kontuan hartuta, gehiago zaindu beharko litzateke.

3. Zer falta zaio Elgoibarri?

Jatetxe bereziak. Herrian dauden denak oso antzerakoak dira, eta zezoz berezia jateko kanpora joan behar izaten dugu.

4. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Badago kirola egiteko aukera, baina mugatua. Hau da, nahiz eta kiroldegiko bazkide izan, zerbitzu gehienak ordaindu egin behar dira. Gainera, kiroldegiko igerilekua txiki geratu da.

5. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Txiki Eguna eta Gabon Zahar feria dira egunik politenak.

6. Gure herria euskalduna iruditzen zaizu?

Euskaraz bizi daiteke Elgoibarren, baina jende askok egiten du gaztele-raz, nahiz eta euskaraz jakin.

7. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Joseba Etxeberria. Futbolak oihartzun handia dauka. Otegi ere ezaguna da, baina Etxebe gehiago.

8. Ondo komunikatuta da gure herria?

Garraio publikoa badago, baina gabeziak ditu. Bilbora joateko autobusa Eibarren hartu behar da, trenaz Bilboraino joatea zortzekoa da-eta. Emaztearen gurasoak Bilbon bizi dira, eta gehienetan autoz etortzen dira hona. Garraio publikoa hobetu egin beharko litzateke.

9. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Bai, ez konduta nago eta orain ume bat daukat. Hori da behar dudana guztia, eta gustura bizi naiz Elgoibarren.

10. Ipini iezaiozu nota gure herriari, Otik 10era bitartean...

7. Eskuzabala izan naizela uste dut.



Merkatu Plaza azpiko kontenedoreek gainezka egiten dute askotan: "Kultur Etxearen eta Merkatu Plaza artean dauden kontenedoreen kanpoaldean zabor mordoia pila-tzen da, batez ere, kartoioak. Papera birziklatzeko kontenedore urdinaren ahoa txikia da, eta jende askok lurtean lagatzen ditu kartoizko kaxak. Ondoren, umeak joaten dira kartoiekin jolastera, eta dena zikin-zikin eginda lagatzen dute. Horri irtenbidea eman behar zaio".

Guardiako botiken sistema ez da egokia: "Elgoibarren lau botika daudela kontuan izanik, lotsagarria iruditzen zait guardiako botika baten bila Soraluze edo Mendarora joan behar izatea. Jende nagusi askok ez dauka autorik, eta eurentzat oso zaila da beste herri batera joatea botika bila. Antza denez, kolegioak derrigortzen ditu sistema hori erabiltzera, baina herriko botikariek zeozer egin beharko lukete horren kontra. Nire ustez, Elgoibar bezalako herri batean egunero egon beharko litzateke guardiako botika bat".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



San Rokeko barandak berritzea-gatik txalo bat eman nahi diegu Udalari. "Bazen garaia! Auzoko barandak erabat ugertuta zeuden, eta bazeukaten berritzeko beharra. Urasandi auzoan ere baranda zahar guztiak kendu eta berriak jarri dituzte, eta oso dotore geratu da. Poliki-poliki herriko txokoak berritu eta garbitzea egin beharreko lana da. Oraingoan txalo bat berezi duzue".

San Rokeko barandak berritzea-gatik txalo bat eman nahi diegu Udalari. "Bazen garaia! Auzoko barandak erabat ugertuta zeuden, eta bazeukaten berritzeko beharra. Urasandi auzoan ere baranda zahar guztiak kendu eta berriak jarri dituzte, eta oso dotore geratu da. Poliki-poliki herriko txokoak berritu eta garbitzea egin beharreko lana da. Oraingoan txalo bat berezi duzue".

NORA

- INPLANTEAK
- HORTZ ESTETIKA
- ODONTOLOGIA OROKORRA
- P.A.D.I.-a

HORTZ KLINIKA

Odontologoa:
Nora Bastida Etxeberria
Koleg. zbkia: 736

Azpilagaeta kalea 5. behea
20850 MENDARÓ
Tel: 943 03 35 75
norabastida@hotmail.com

- Lehenengo errebisioa eta aurrekontua dohain.
- Sei hilabetetara FINANTZIAZIOA (interesik gabe).

09

GIDA KOMERTZIALA
2009

Iazko gidan zure negozioaren telefonoa agertu ez bazen,
deltu zenbaki honetara:
943 74 37 04
edo helbide honetara idatzi:
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Munduko Gazta Lehiaketan urrezko domina eskuratu du Mausitxak

Mundu osoko 2.000 gazta aurkeztu zituzten txapelketara

Mausitxa baserriko gaztak beste sari bat lortu du aste honetan. Munduko Gazta Txapelketa (World Cheese Awards) jokatu zen martitzenean, eta Elgoibarko gaztak lehenengo saria jaso du bere kategorian. Dublinen (Irlanda) egin zen txapelketa, eta mundu osoko 2.000 gazta inguru aurkeztu zituzten lehiaketara. Besteak beste, Australia, Estatu Batuak, Hego Afrika eta Britainia Handiko hainbat gaztarekin lehiatu behar izan zuen Elgoibarko gaztak.

Mausitxa baserriko bizilagunak pozik daude sariarekin. Izan ere, munduan dagoen gazta lehiaketarik garrantzitsuenetarikoa da. 80 lagunek osatu zuten epaimahaia, gazta mota diferenteen rankinga osatzeko, eta zerrenda horietako baten goiko postuan agertuko da aurrerantzean Mausitxa. Iñaki Ansola elgoibartarra Dublineraino joan zen saria jasotzera.

Idiazabalgo gazta arrakastatsua

Baserri bereko Jesus Mari Ansola pozik zegoen lortutako sariarekin: "laz ere gertu ibili ginen, baina orduan bronzeko domina lortu genuen. Aurtengoa



San Bartolomeetako gazta lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuen Mausitxak.

ez genuen espero, baina pozik hartu dugu saria".

Idiazabalgo gaztak arrakasta handia izan du aurtengo txapelketan, izan ere, Mausitxakoarekin batera, beste bost urrezko domina eskuratu dituzte euskal artzainek, eta zilarrezkoak eta brontzez-

koak ere ekarri dituzte Irlanda aldetik. Jesus Mari Ansolak esandakoaren arabera, Idiazabalgo gaztak fama oso ona dauka Euskal Herritik kanpora ere. Iaz Londresen jokatu zen txapelketan ere, Idiazabalgo hamabi gaztagilek bederatzi domina eskuratu zituzten.

Larri dago zapatuan King-Kong parean autoak harrapatu zuen neska



Argazkia: Aitor Zabala

Joan zen zapatuan, irailak 27, auto batek hamabost urteko Eibarko neska bat harrapatu zuen King-Kong parean, eta larri zaurituta dago. Lekukoek adierazitakoaren arabera, neska gaztea behar ez den lekutik ari zen errepidea gurutzatzen, eta Renault Clio markako auto batek harrapatu zuen. Kolpea bortitza izan zen, eta bost metrotaraino jaurti zuen neskatila. Mendaroko Ospitalera eraman zuten, baina zaurien larritasuna ikusirik, Donostia Ospitalera lekualdatu zuten. Azken berrien arabera, larri dago, baina larritasunaren barruan, bere egoera egonkortzea lortu dute medikuek.

Pertsonaia **Fernando Bert**



Urriaren 10ean epaituko dute Fernando Bert elgoibartarra Audientzia Nazionalan. Bert orain dela sei urte atxilotu zuten Frantzia, eta zigorra bete ondoren, Espainiara estraditatu zuten. 12.000 euroko bermea ordaindutakoan, iazko martxoan irten zen kalera, eta datorren astean epaitu egingo dute. Fiskalak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu du elgoibartarrantzat. Elgoibarko Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak esandakoaren arabera, estatuaren errepresio politikaren beste adibide bat da hau, eta babes osoa eskainiko diete Fernandori eta bere senideei.

Berbia **Haur pornografia**

Haur-pornografiaren aurkako operazioaren zipriztinak Elgoibarrera ere ailegatu dira. Espainiako Poliziak Interneteko haur pornografiaren kontra inoiz egin duen operaziorik handiena egin du aste honetan. *Carrusel* izeneko operazioaren barruan, Hego Euskal Herrian 15 lagun atxilotu zituen, 71 Herralde Katalanetan, 11 Galizian eta 97 Espainian; guztiak gizonak. Gipuzkoan bi lagun atzeman dituzte, Irunen eta Elgoibarren.

Irudia **Orkatza telebistan**

Deba ibaian dabilen orkatzak zeresana piztu du, eta telebistaraino iritsi da. ETB2ko *Pasalo* saioko kazetariak Elgoibarren izan dira aste honetan bertan Orkatzaren irudiak hartzeko asmoz. Basozain bati elkarrizketa egin zioten orkatzari buruzko informazioa jasotzeko, eta herritarrei ere, orkatzaren gaineko galderak egin zizkieten. Orkatz gaztea famatu bilakatu da.



Bake epailea

Elgoibarko Udalak bake epaile postua betetzeko interesa dutenei jakinarazi nahi die, Arreta Bulegoan egin dezaketela eskaera urriaren 8a baino lehen. Hautagaiek ondorengo baldintzak bete behar dituzte: Espainiako nazionalitatea eta adinez nagusia izatea, funtzio judicialak betetzea eragozten duen debekurik ez izatea eta Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak ezagutzea.

Adineko pertsonak zaintzeko ikastaroa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak antolatuta, mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzeko prestakuntza ikastaroa eskainiko da. Urriaren 13tik 17ra izango da ikastaroa, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara, Kultur Etxean. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko 943 741 008 telefonora deitu daiteke.

Esperientzia eskolan izena emateko epea luzatu dute

Debabarreneko Esperientzia Eskolak hasiera eta amaiera datak aldatu egin ditu, eta, ondorioz, eskolak bi aste beranduago hasiko dira. Matrikulazio epea azaroaren 6ra arte luzatu dute, eta eskualdeko edozein udaletxetan eman daiteke izena. Informazio gehiago 695 788 936 telefonoan.

Gurasoekin bilera Elgoibarko Institutuan

Elgoibarko Institutuko ikasleen guraso bilera izango da datorren martitzenean, urriak 7, arratsaldeko 19:00etan. Guraso, irakasle eta tutoreen arteko lankidetzeta sistema landuko da bertan, eta ikastetxeko arduradunek ahalik eta guraso gehien gerturatzeko deia egin nahi dute. Bestalde, San Roken apartatzeko arazo handia dagoenez, gurasoei autorik gabe joateko eskaera egiten diete.

Anton Piñel

Mendiak, bidaiak eta ilusio mundiala

Mendizale amorratua da Anton Piñel mendaroarra. 1955tik makina bat mendi igotzeko aukera izan du mundu zabalean. Azken urteotan, urtarril-otsailero egiten du espedizioen bat Hego Ameriketatik zehar, gehienetan mandoz lagunduta. Patagonia eta Tierra de Fuegon hainbeste ibilbide egin dituenaz, hango lagunek gautxoak ere badela esaten diote. 67 urterekin, sekulako energia transmititzen du. Izan ere, kirola egiten jarraitzen du. Ilusioa eta kuriositatea dira osasunari eusteko bere sekretuak.

Oier Narbaiza



Anton Piñel, gorria, iazko urtarrilean egindako espedizioan.

Zaia da Anton Piñel mendaroarrekin berbetan egon eta bere ibilbideak erreportaje batean laburbiltzea. Bidaetatik transmititutako gorabeherekin, sentipenekin edo irudiekin liburu bat idatzi daiteke.

Gaztaroan ekin zion inguruotako mendietan ibiltzeari, 1955 inguruan. Oraindik akorduan dauka Pirinioetara lehen aldiz egindako irteera, 1957. urtean. Hara trenez ailegatze hutsa sekulako abentura zen. Gogoan dauka Pirinioetan egindako lehen hiru milakoa, Infierno mendira, esperientzia eta erreferentzia gutxiarekin. "Horrek guztiak hazteko aukera eman zigun, bai mendian, bai bidaie-tan ere", uste du.

Goi Atlasean 1966an izan zen lehen aldiz. *Dos Caballos* batean joan ziren Marokora, 32 orduetan. Orduan ez zegoen automobil askorik eta gustura gidatzen zuen. Orain, berriaz, alperkeria ematen dio hainbeste autoreen artean gidatzeak.

Elbrusera 1969an egin zuten irteerak ez du gaur egungo espedizioekin zerikusirik. Simca 1.000 batean egin zuten bidaia, muga guztiak pasatzen. Hungria eta Sovietar Batasunaren arteko mugan sei ordu eman zituzten. Kaukasoraino heltzeko bideak eskasak eta bakartiak ziren. Gasolina nekez topatu ahal zuten, ezberdina zelako hangoa (60 oktanokoa).

"Bidaia egitea hori da", uste du. Orain, halakorik egitea ezinezkoa izango litzateke, baina leku apartatu eta bakartien bila jarraitzen du. Leku *birjinak* zapaltzeko aukera badiu oraindik. Hego Ameriketara, sei milako mendietan lortu izaten du bilatzen duena.

Urrutiko leku bakartiak


Aurtengo otsailean Argentinan mandoz egindako espedizioan, esate baterako, sentipen zirraragarriak sentitu zituen. Orain dela 191 urte Cabot koronelak eginitako ibilbide gogorra berregitea lortu zuen beste sei lagunekin batera. Portezuelo de Guana zen lekurik apartatua: gertuen zegoen automobila oinez bospasei egunetara zegoen, 250 bat kilometrorra. Kontuan izan behar da leku hori 4.306 metro-ra dagoela eta hainbat mendi bailara luze pasatu behar direla.

Azken boladan, urtero, urtarril aldean, lagunekin, Hego Ameriketara joaten da.

Urtero lau edo bost asteko bidaiak egiten ditu Anton Piñelek



o bidaiari, gautxoekin batera.



Normalean mandoz egiten dute ibilbidea. Hala ere, Patagonian zaldiz ere ibili izan da.

Munduan inor gutxi zapaldu dituen lekuak zapaldu ditu Piñelek eta sentsazio oso berezia da, bere iritziz: Argentinan, Toro mendilerroko Nevado las Palas-en, Inken galtzada batetik gertu egon arren, “bailara sakon hartatik pasatzean beharbada historian lehen aldiz handik pasatzen ginen sentsazioa geneukan”, azaldu du.

Bazter miresgarriak

Halako abentura handietan sartu gabe, hemen ere sentipen bereziak izan daitezkeela uste du Anton Piñelek. “Baserrira gagez bakarrik zoazenean, oinez: behelainoa badago eta mozolua entzuten duzunean, sentsazio hori ere sentitzen da”, azaldu du. Gizakion eraso gutxi izan ditueenez, Arno mendiar oraindik bazter miresgarria irizten dio, eta bizipen sakonak es-

kaini ahal dizkio edozeini, handik zehar galduz gero.

Azken batean, urteen poderioz, gizakiok leku guztietara allegatzen gara eta dena aldatzen da. Patagonia eta Ushuaia, esaterako, ez dira lehengoak. “Leku erakargarriak dira eta modu dramatikoan aldatu dira”, dio. Ikaragarri hazi dira. Eta atentzia ematen dizu lekuok nola aldatu diren”.

Datorren otsailean Inkek argentinan zuten bideari jarraituko dio. Lagunetako bat arkeologian aditua da eta lan bat prestatzen ari da. Argentinako La Quiacan hasiko dute ibilbidea, Boliviako mugatik gertu eta Mendoza aldera joango dira. Mandoa erosi egingo dituzte eta gero saldu, alokatzea baino merkeagoa da-eta.

Ilusioa, garrantzitsuen

Antonon esanetan “Ilusioa izan behar dago”. Mendaro aldea entrenamendurako erabiltzen du. Izan ere, kirol asko egiten ja-

rraitzen du. “Ahal dena egiten dut aktibitatearekin jarraitzeko. Ilusio kontua da edo zure burua ilusionatzea”. Aldapan gora antxintxika joateak eta mendi ibilbideak egiteak indarra ematen diote. Han hemenka bizi da: Mendaro eta Lanzarote artean, bidaiari eta irteera artean.

Eta bidaiari ilusio horri eusten laguntzen diote. “Istoriokoak ezagutzeko aukera ematen du bidaiari. Hemengo bizitza modernoan komunikatzeko aukerarik izaten ez ditugun istorioak”. Hori esatean, benetako istorio bat kontatu du, bidaiari batean ezagutzeko emakume baten istorio dramatikoak, jaio-berritan abandonatu zuten andrea eta geroago erloju batzuen truke saldu zutenarena. Emakume horrek esaten zuen esperantzan bizi zela, ilusioan. “Bizitza aukerarekin gozatu egin behar da”, esaten zuen emakumeak. Azken batean, dena kontra izan arren, aurrera egitea lortu zuen. “Gauza horiek dauzkazu bidaiari”.

Gure berbak

Aditza (28): Agintera I

Aste honetan, aginterazko aditzak aztertzen hasiko gara, aginduak ematerakuan ibiltzen dittugunak.

Euskera batuan aditzaren oiña (errua) izaten debe aginterazkuak (*etor, ibil, har, sal...*); forma hórretan oiñarritzen da aginterazko aditza: *etor hadi, ibil zaitetz kontuz, har ezazu kaliza, sal ezazu etxea behingoz...*

Elgoibarko hizkeran (eta, oro har, mendebaldian), berriz, aditzaren partizipua hartzen dau aginterak (*etorri, ibili, hartu, saldu...*); beraz, Elgoibarren, *etorri hadi (hari), ibili zaitte kontuz, hartu egizu (hartuizu) kaliza, saldu egizu (salduizu) etxia behingoz...*

Bada bestelako desberdintasun bat ere, batuko aditzarekin konparatuz: aditz trantsitibuetan (*hartu, saldu, ekarri, erosi...*), euskera batuan *EZAN errua dauka aditz-laguntzailliak (eZAzu, eZAk, ieZAiok...); Elgoibarren, berriz, Bizkaiko hizkeretan bezelaxe, EGIN errua hartzen debe aginterazko aditzak: eGIzu (*hartu (eg)izu*), eGIk (*saldu (eg)ik*), eGIok...

Amaitzeko, aginteraren adibide batzuk:

- ◆ *Gaur arratsaldian eztagok iñorako zerarik, eta jun hari, jun hari eskolara.*
- ◆ *“Etorri hari hona”, esan zidan.*
- ◆ *Kanpora juan zaitte, eta radixo bat hartuizu, eta, Kataluña izan edo Valentzia izan, diperente egitten dabe.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1996

Aste honetako erretratua Felix Moralesek laga digu. Aittola inguruan ateratako erretratua da. Egun horretan, Ger enpresako langileek afaria egin zuten Aittola Zar jatetxean, eta afaldu aurretik elurretan ibili ziren apur bat. Eguraldi txarra egin arren, ez ziren kikildu eta Madariaga gainaldera joan ziren afaltzera. Enpresak ordaindutako afaria izan zen, eta, esan digutenez, primeran jan zuten.

Ikus dezagun erretratuan azaltzen direnak:

Zutik, ezkerretik eskumara: Felix Morales, Jose Migel Lariz, Jose Antonio Gabilondo, Luis Izagirre.

Makurtuta: Salvador eta Nicolas Merino.



III. URTEURRENA

SABIN LARREATEGUI ORUNA

2005eko urriaren 8an hil zen.

Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, eguaztenean, urriak 8, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA**23 talde aukeratu ditu epaimahaiak eta azkena publikoak aukeratuko du**

Urriaren 17an hasiko da lehiaketa Elgetako Espaloian; finala urtarrilaren 16an izango da toki berean. Danbaka Musika Lehiaketak aurrera pausuk ematen dihardu. Jakinaenez, 24 taldek parte hartuko dute, aurreko edizioan baino lau gehiagok. Astebetez abestiak entzuten egon ondoren, jontan den barixakuan 23 sailkatuen zerrenda aukeratu zuen epaimahaiak. Publikoaren ardura izango da azken taldea aukeratzea. Txapelketaren edizio honetan 39 talde aurkeztu dira.

Hasiera urriaren 17an

Urriaren 17an hasiko da lehiaketa, Elgetako Espaloian. Kontzertuak barixakuetan izango dira, 22:30ean, eta azken finala urtarrilaren 16an izango da.

Saria: Arrasateko Shot! grabazio estudioan diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratzea.

Aukeratutako taldeak

- | | | |
|-----------------------------|---------------------------------|--------------------------------|
| ◆ Adi Holden (Bergara) | ◆ Igor San Juan (Aretxabaleta) | ◆ Scam (Aretxabaleta) |
| ◆ Army (Zornotza) | ◆ Lord Witch (Bergara) | ◆ The 5 Twisters (Arrasate) |
| ◆ Barua Banda (Eskoriatza) | ◆ Los Viernes al Ron (Antzuola) | ◆ The Motherfuckers (Arrasate) |
| ◆ Bitter Honey (Arrasate) | ◆ Mery May (Arrasate) | ◆ The Wet Band (Mutriku) |
| ◆ Brankan (Berriz-Markina) | ◆ Ni_neu (Eibar) | ◆ Tuesday Evenings (Durango) |
| ◆ Damudot (Mallabia) | ◆ Norman (Eibar-Ondarroa) | ◆ Turboshit (Bergara) |
| ◆ Flipin Folk (Ermua-Eibar) | ◆ Rock Privado (Oñati-Donostia) | ◆ Ymotek (Abadiño) |
| ◆ Foxy Boxxi (Arrasate) | | |
| ◆ Hilbete (Durango) | | |

Kontzertuak

- | | | |
|---------------------|----------------------|---|
| ● Urriak 17 eta 31 | ● Abenduak 12 eta 19 | KONTZERTU GUZTIAK ELGETAKO ESPALOIAN, 22:30EAN. |
| ● Azaroak 14 eta 28 | ● Urtarrilak 16, | |

www.danbaka.com

DANBAKA))))III. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENADURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



Atzo hasi ziren Errosario kaleko jaiak eta martitzenean amaituko dira Ama Birjinaren egunarekin

Pilota partiduak jokatu dituzte gaur, barixakua

Errosario kaleko jaiak atzo hasi zituzten, eta jai giroak martitzenera arte iraungo du. Egunotarako zahar eta gazteak gustura ibiltzeko egitarau zabala antolatu dute.

Gaur 18:00etan Kiribilen bisita edukiko dute Errosario kalean. Ordu berean hasita, Elgoibarko Lagunak taldeak antolatutako pilota partiduak jokatu dituzte. Ondoren, Mauxitxa txarangarekin kalejira egingo dute.

Eguna amaitzeko, herri afaria egingo dute Kultur Etxeko sotoan: joan nahi dutenek Lomboken eman beharko dute izena.

Egitarau zabala

Bihar, zapatua, 11:45ean agurra eta aureskua dantzatzeko dituzte Errosarioko Ama Birjinaren irudiaren aurrean, eta 12:00etan esku pilotako partiduak jokatu dituzte.



Domekari dagokionez, 11:00etan Errosarioko hildakoen oroimenez meza egingo dute, eta 18:00etan errosarioa izango da; dena Parrokian.

Herri jokoetan parte hartzeko aukera egongo da astelehenean 17:30etatik aurrera, eta, ostean, batukada.

Jaiak amaitzeko, astelehenean Errosarioko Ama Birjinaren eguna ospatuko dute. 12:00etan txapligoak botako dituzte, 17:00etan sokamuturra egingo dute Arnoko zezentxoekin, eta 20:00etan, salbea egingo dute irudiaren aurrean. Ondoren luntxa egongo da.

“Maldito parné” antzezlan ikusi ahal izango da datorren barixakuan herriko Antzokian



Datorren barixakuan, urriaren 10ean, Glu-glu taldearen antzezlana berria ikusi ahal izango da Herriko Antzokian. *Maldito parné* antzezlan taularatuko du 22:15ean.

Haziendako bulego bateko lau garbitzailek bi milioi euro topatzen dituzte, nagusiek han lagata. Dirua hartu ez hartu pentsatzen jardungo dute. Azken batean, ongiaren eta gaizkiaren arteko mugari buruz egiten du berba Patxi Perezek zuzendutako antzezlana honek.

Carmen Pomperok egindako lana taula gainera eramateaz bost antzezle arduratuko dira: Ana Pérez, Pilar Guerra, Osmar Vázquez, Mari Cruz Melgosa eta Miriam Cabeza.

Ikuskizuna 22:15ean hasiko da. Dena dela, sarrerak Kultur Etxean aldeztatik erosteko aukera ere egongo da, 8,50 euroren truke (gazte txartelarekin, 6 euro).

Gaur, barixakua, umeentzako antzezlan

Kiribilkak antolatuta, umeentzako antzezlan egongo da gaur, barixakua, 18:30ean Herriko Antzokian. Ane Monna Oskola eta Karamarro antzerki taldeak *Ino Ino Ino badator Bonbardino* antzeztuko dute Elgoibarko gaztetxoenerantz.

Udazken Festa egingo dute bihar Atxutxiamaikakoek

Larunbatean Atxutxiamaikak antolatuta Udazken Festa egingo dute Plaza Handian, 11:00etan hasi eta 13:30era arte. Ekimena HH, LH 1 eta LH 2 ko haurtzako da, eta denetarik egiteko aukera edukiko dute txikiak: tailerrak, aurpegia margotzea, eskulanak, kareta, ipuin kontaketa eta marrazki margoketa, besteak beste. Gainera, ekintzak egin bitartean musikarekin giro alai egongo da uneoro.

Giro paregabean amaitu dira Aiastiako San Migel jaiak

Ardi txakurretan txapela Nafarroara joan zen eta Arrillaga elgoibartarra hirugarren gelditu zen

Neurri handi batean eguraldia izan da aurtengo San Migel jaietako giro paregabearen arduradun nagusia. Eskertzekoa izan da temperatura ona eta eguzkia. Giro bikainean pasatzeko moduko jaiak izan dira aurtengoak. Ardi txakur txapelketa irabazlea Amairuko Felix Irigoien izan da, *Xatur* txakurraren laguntzaz. Bigarren saria Jose Antonio Agirrek eroan du, *Urki* txakurraren lanari esker. Jose Antonio Arrillaga elgoibartarra eta *Lagun* txakurra leku onean gelditu dira, hirugarren. Idi probetan Bikiak izan ziren irabazle 48 plazarekin. Sistiagak 41 plaza lortu zituen eta Igeldok 48.



Hasi da kultura tradizionalari buruzko ikastaroa



Elgoibarko Izarra kultur elkarteak antolatuta, euskal kultura tradizionalari buruzko ikastaroa hasi zen eguaztenean Kultur Etxean. Juan Carlos Etxegoien "Xamar" idazle nafarrak dihardu ikastaroa ematen. Etxea, herri egiturak, inauteriak, ahozko kultura, mitologia eta sinismenak eta euskara landuko dituzte abenduaren 10era arte. 33 lagunek eman dute izena.

Zine-kluba berriro

Ongarri zine-klubak berriz ekingo dio ohiko zine denboraldiari, urriaren 9an. Egun horretan Eran Kolirin zuzendari israeldarraren "La banda nos visita" filma eskainiko dute. Urrian, azaroan eta abenduan izango dira zine-klubeko emanaldiak, eguenetan, 21:30ean Herriko Antzokian.

MunLet Kafe Antzokian

Mendaroko MunLet taldeak Bilboko Kafe antzokian kontzertua eskainiko du urriaren 24an, barixakua. Kontzertuan Dragonette eta Loto taldeak ere izango dira. Mendaroko bikoteantzat kontzertu garrantzitsua izango da, orain arte gaztetxeetan eta lokal txikietan eskaini dituelako zuzenekoak. Elektro-punk doinuekin, *Clinica de Ruidos* diskoa plazaratu zuten iaz eta aurtan Bilbo Hiria maketa lehiaketan bigarren gelditu da.

Josu Arregi azpeitiarra izan da San Migel igotzen lehena

Bigarren Oscar Malvar elgoibartarra helmugaratu da

San Migelgo Korrika Igoera egin zuten joan den asteburuan. Antxitxinka egin beharreko kilometroak ez dira asko, 5,5 denera; baina, aldapan gora egin beharrak ematen dio zailtasuna probari. Aurten 50 lagunek hartu dute parte, eta Josu Arregi azpeitiarra izan da lehena helmugan sartzen: 19 minutu, 38 segundo eta 52 ehuneko behar izan zituen proba egiteko, eta marka berria ezarri zuen gainera. Proba amaitzen bigarrena Oscar Malvar elgoibartarra izan zen: irabazleak baino 13 segundo gehiago behar izan zituen.



Sailkapena

NESKAK

1 Nerea Amilibia (Aia)	25: 22:64
2 Ainhoa Lendinez	26:35:06
3 Pilar Arriola	27:35:92
4 Pilar Lama	33:00:18

MUTILAK

1 Josu Arregi (Azpeitia)	19:38:52
2 Oscar Malvar	19:51:73
3 Juan Antonio Soto (Mendaro)	21:05:76
4 Iñigo Lariz	21:17:54
5 Joseba Altuna (Azpeitia)	22:19:81
6 Mikel Anakabe	22:26:23
7 Ibon Gabilondo	22:28:49
8 Igor Urionabarrenetxea (Aulesti)	22:37:21
9 Joseba Fernandez (Deba)	22:39:67
10 Igor Agirregomezkorta	22:55:27
11 Jon Larrafiaga (Mendaro)	23:00:50
12 Sabin Zenarruzabeitia (Aulesti)	23:04:83
13 Adur Juaristi (Deba)	23:12:01
14 Martin Dominguez	23:22:33
15 Imanol Santos	23:34:66
16 Eduardo Uribe	23:40:55
17 Igor Rey (Mendaro)	23:55:14
18 Andoni Hidalgo (Deba)	23:59:99
19 Gotzon Zulaika (Mendaro)	24:48:46
20 Roberto Osoro (Mendaro)	25:02:73
21 Ruben Arrizabalaga (Mutriku)	25:23:04
22 David Conde	25:31:24
23 Jose Luis Llado (Eibar)	25:33:03
24 Iñigo Gurrutxaga	25:37:26
25 Eneko Loiola	25:46:38
26 Imanol Carcedo	25:47:97
27 Ignacio Perez	25:55:19
28 Mikel Gabilondo	26:10:88
29 Luis Anakabe	26:12:71
30 Jose Luis Gisasola (Eibar)	26:24:89
31 Fernando Loiola	26:35:67
32 Javier Fernandez (Mendaro)	26:46:48
33 Asier Garde (Eibar)	26:47:20
34 Elias Fernandez	26:49:63
35 Amadeo Antonio Teixeira	26:52:22
36 Ganix Rodriguez (Eibar)	26:56:25
37 Bittor Ugarteburu (Eibar)	27:00:74
38 Manuel Mateos (Deba)	27:06:88
39 Juan Mari Ugarte (Usurbil)	27:37:84
40 Roberto Alonso	27:45:78
41 Luis Angel Rodriguez (Ermua)	27:57:56
42 Fran Fernandez (Eibar)	28:09:59
43 Javier Oñederra	28:21:00
44 Bittor Astigarraga (Eibar)	28:24:09
45 Jose Luis Diez	28:34:02
46 Javier Abad	29:47:38

Hainbat kiroldegi ezagutzen dihardute herriko agintariek eta kirol taldeek

Elgoibarko kirol beharrei erantzuna eman nahi diete



Elgoibarko kirol instalazioen beharrik aztertzeko, hiru kiroldegi bisitatu dituzte dozena erdi kirol taldeetako ordezkariak, alkateak eta hainbat alderditako zinegotziak. Beasaingo, Tolosako eta Oiartzungo kiroldegiak bisitatu, eta kirol azpiegitura batek eduki behar dituen ezaugarriak zehaztea da Udalaren helburua: “Ikusitako kiroldegien arteko oreka bat topatu nahi dugu”, azaldu du herriko alkate Alfredo Etxeberriak.

Inguruko herrietako kiroldegietan gertatzen diren joerak ikusi nahi izan dituztela ere gaineratu du alkateak: “Gure inguruan egiten ari diren kiroldegi berrietan, edo zaharberriak dituztenetan, zer joera nagusitzen den ikusi, bertako teknikoekin berba egin, eta euren inpresioak ezagutzea nahi dugu”. Herritarrek instalazio berrien aurrean emandako erantzuna ere jakin nahi izan dute.

Kiroldegi gehiago ikusteko asmoa dutela ere aurreratu du Udalak.



Castañares anaiek podioa lortu dute zaldien gainean

Iosu eta Igor Castañares anaiek Zizurkilgo afizionatu mailako zaldi lasterketan hartu zuten parte joan den asteburuan. Emaizta bikainak lortu zituzten elgoibartarrek.

Iosu Castañaresek lehen postua eskuratu zuen Zizurkilen *Bizkor* zaldiaren gainean. Haren atzetik, Igor hirugarren postuan sailkatu zen *Hodei* zaldiaren gainean egindako lasterketan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Amorebieta 1 – Elgoibar 1 (**Haundi**)
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 5 (**Neskak**)
Elgoibar 0 – Lagun Onak 3 (**Erreg.**)
Elgoibar 8 – Soraluze 0 (**Jub.**)
Zarautz 3 – Elgoibar 1 (**Kad.**)
Elgoibar 0 – Amaiak Bat 4 (**Inf.**)
Elgoibar 1 – Eibar 2 (**Inf. Txiki**)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 6 – Astraburuko 6 (**Nazional B**)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 5

11:00 Elgoibar – Azpeitia (**Nazional B**)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 4

10:30 Elgoibar – Aloña Mendi (**Kad**)

16:30 Elgoibar – Eibartarrak (**Nesk.**)

19:00 Haundi -San Ignacio

Domeka, 5

11:00 Elgoibar – Anaitasuna (**Alebin.**)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 4

17:30 Ikus – Bergara (**Kad. neska**)

Futboleko entrenamendu teknikoaren urriaren 12an

CD Elgoibarrek jakinarazten du futbol eskolako entrenamendu teknikoaren urriaren 12an izango dela. Hasieran, urriaren 5erako jarri zuten data, baina egun horretan kilometroak izango direnez, entrenamendua astebetetz atzeratzea erabaki dute. Beraz, 1998an jaiotako neska-mutilentzako entrenamendu teknikoak hilaren 12an hasiko dira, goizeko 10:00etan, Mintxetan.

LANA

ESKAERA

- Emakumea, etxeko lanak egiteko prest (arratsaldez) ☎ **943 74 32 51**
- Neska gaztea, umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (egun osoz edo ordu batzuetarako).

☎ **660 289 049**

- Neska, pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest.

☎ **678 939 382**

- Neska gaztea, edozein lanerako prest arratsaldez (esperientzia ume-zaintzaile bezala) ☎ **685 796 177**

- Emakume euskalduna, kotxearekin baserrietan pertsona nagusia zaintzeko edo antzeko lanak egiteko prest. Esperientziarekin. ☎ **626 438 248**

- Emakumea, zaharrak nahiz umeak edo garbiketa lanak egiteko prest.

☎ **638 338 816**

- Emakume euskalduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest (garbiketa lanak egingo lituzke)

☎ **660 511 781**

- 30 urteko mutila, garraio lanetarako prest. C gida-baimena badut.

☎ **660 806 008**

- Mutila, goizetan, gauetan edo asteburuetan edozein lan egiteko prest.

☎ **630 252 859**

- Gizon arduratsua eta langile fina, edozein lan egiteko prest. Edozein ordutan deitu. ☎ **627 276 995**

- Neska, lan egiteko prest (esperientzia garbiketa lanetan eta zaharrak zaintzen).

☎ **616 465 940**

- Neska, lan egiteko gogo handiarekin. Kotxea eta gida baimena ditut.

☎ **669 154 143**

ESKAINITZA

- *Au-Pair* behar da Londresen urtariletik udara arte. mirenlondon@hotmail.com

☎ **667 710 753**

- Zerbitzaria behar da.

☎ **669 644 632**

ETXEBIZITZA

SALMENTA

- Etxebizitza salgai San Antolinen. Denan kanpora begira baita komuna ere. Argitsua eta eguzkitsua. Gas naturala sartuta. Trasteroduna. Etxe osoa berziturik: komuna, sukaldea, ateak, leihoak... ☎ **655 722 681**

ALOKAIRUA

- Etxea alokairuan bilatzen nabil. Bi edo hiru logelakoa

☎ **696 246 962**

- Etxea alokatzen da Elgoibarren. Altzariarekin.

☎ **636 233 175**

- Etxea alokatzen da Mendaron.

☎ **658 379 393**

MOTORRA

- Iveco Daily furgoneta, salgai. 2800 turbo motorduna.

☎ **607 393 114 / 678 623 114**

BESTELAKOAK

- Altzariak, etxeko tresna elektrikoak, gortinak eta ohe arropak behar dira.

☎ **676 444 171**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira

BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro**

eta alokairua **10 euro**.

Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**.

Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



BEKAK

FULBRIGHT BEKA

Ameriketako Estatu Batuetan gaztelania lektore aritzeko Fulbright beka martxan dira. Epea: Azaroak 7

LANA

IDAZKARI JUDIZIALAK

Justizia Ministerioak deituta, ordeko idazkari judizialen lan poltsa. Zuzenbideko lizentziatu izatea beharrezkoa da Gipuzkoan.

Epea: urriak 4

IRAKASLEAK

Urola Kostako AEKn datorren ikasturterako irakasleak behar dituzte. Curriculumara zarautz@aek.org helbidera bidali. Informazio gehiagorako: 943 130 175

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan. e-posta: gib@elgoibar.org ☎943 74 14 61
Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan: 11:00etatik 13:00etara
Astelehenerik ostiral arratsaldetan: 16:00etatik 19:00etara.

EIBAR EZKONTZA AZOKA

2008

NON: ARMERIA ESKOLAKO PABILIOIAN


NOIZ: URRIAK 11 eta 12

Larunbatean
17:00etatik 21:00 etara

Igandean
11:00etatik 14:00etara
17:00etatik 21:00etara

- ☞ Erakustazoka
- ☞ Desfilea
- ☞ Dastaketak
- ☞ Zozketak

- * *Sarrera doan jende guztiarentzat*
- * *Ezkontzarako behar den guztia*
- * *Opari ederren zozketa.*





• Zorionak, **Alaitz Lolola**, zortzi urte egingo dituzulako. Etxekoen eta bereziki Gaizka eta Mirenen partez.



• Zorionak, **Leire** irailaren 29an lau urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Ion**, astelehenean bi urtetxo egingo dituzulako. Patxito asko aitaxto eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Darwin Xabier Fonseca**, urtetxo bat egin zenuelako. Gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Malen** zazpi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen eta ahizpa Nahiaren partez.



• Zorionak, **Izan**, hiru urte egingo dituzulako. Familiakoen, amaren eta aita Diegoren partez. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Marial** Berandu baina akordatu gara! Muxu asko gurasoen, eta bereziki, Paularen partez.



• Zorionak, **Paula!** Egun ederra pasatuko zenuelakoan, muxu bat gurasoen, eta Mariaren partez.



• Zorionak, **Kattalini!**



• Zorionak, **Iker**, bihar bi urtetxo egingo dituzulako. Muxu asko gurasoen partez.



• Zorionak, **Iortz**, gaur 11 urte egin dituzulako. Gurasoen eta aitona-amonen partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Ekaitz**, astelehenean hamar urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Etxekoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, igandean hiru urtetxo egingo dituzulako. Familiakoen partez, patxo mordo bat.



• Zorionak, aitxita **Pako**, atzo urteak egin zenituelako. Emaztearen, seme eta biloben partez.



• Zorionak, **Noelia** gaur urtetxo bat egin duzulako. Muxu asko Roberto eta aitaren partez.



• Zorionak, **Eva Jurado Eguren** 17. urtebetetzean. Hor egongo gara denok zure eguna ondo ospatzeko!



• Zorionak, **poxpolinal** zure bigarren urtebetetzean. Lehengusu, anaia Elur eta Unai, eta amonaren partez.



• Zorionak, **Maddil** Gure txiki haundixak 3 urte bete ditu. Muxu bat Manexen eta beste guztion partez.



• Zorionak, **Ander**, zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat familiakoen partez.



• Aste honetan ospatuko degu urtebetetzea. Aupa!



• Zorionak, **bikotel** Ondo pasa zuen ezkontza egunean! Denon partez, bereziki, aita eta amaren partez.



• Zorionak, **Aitor eta Amaia**, hilaren 5ean eta 7an urteak egingo dituzulako. Etxekoen eta Nerearen partez muxu bat.



• Zorionak, **Jone**, urriak 5ean 4 urtetxo betetzen dituzulako. Muxu asko familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Javier eta Iker Urbietari**, sei eta urte bat egin dituztelako. Aiton-amona eta osaba-izeben partez.



• Heldu da gure urtebetetzea ospatzeko ordua! **Ainhoa eta Narrea**.

OKINDEGIA

5 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 3 Ibañez
- 4 Yudego
- 5 Yudego
- 6 Etxeberria (Santa Ana)
- 7 Fernandez
- 8 Yudego
- 9 Zabaleta
- 10 Etxeberria (Errosario)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**

Egin klik



www.elgoiBARREN.net

 **erakusketak**

5 domeka

12:00 Emilia Nogalesen
margo erakusketa
Emilia Nogalesen "Zuretzat"
margo erakusketa ikusteko
azken eguna.
Kultur Etxean.

 **aisialdia**

4 zapatua

11:00 Udazken festa
Haur Hezkuntza eta Lehen
Hezkuntzako 1. eta 2.
mailakoentzako ekitaldia.
Plaza Handian.
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra.

 **antzerkia**

3 barixakua

18:30 "Ino, Ino, Ino...
badator bonbardino"
Kiribilka egitasmoaren
barnean, Ane Monna Oskola
eta Karramarroi antzerki
taldeak eskainitako ikuskizuna.
Herriko Antzokian.
Antolatzailea: Elgoibarko
Izarra.

10 barixakua

22:15 "Maldito parné"
Glu-glu produkzioak taldeak
"Maldito parné" antzezlan
aurkeztuko du.
Herriko Antzokian.



Gure gomendioa

Margo erakusketa

Gaur, barixakua, 19:00etan
Emilia Nogales elgoibartarraren
margo erakusketa ikusteko az-
ken aukera izango da asteburu
honetan. "Zuretzat" izeneko
erakusketan, artista elgoibarta-
rraren 34 koadro daude ikus-
gai, eta berak diseinatutako
zenbait kamiseta ere bai. Gaur
eta bihar, iluntzeko 19:00etan
irekiko da erkusketa, eta dome-
kan 12:00etan.



«Dejad de quererme»

3, barixakua: 22:15
4, zapatua: 19:00/22:15
5, domeka: 19:00
6, astelehena: 21:30

**«Wall-E: Batallon
de limpieza»**

5, domeka: 16:30

«La banda nos visita»

(Ongarri)
9, eguna: 21:30

ERROSARIO KALEKO JAIAK

3 BARIXAKUA

18:30 LAGUNAK pilota
elkarteak antolatuta, pilota partiduak Plaza Handian
19:00 MAUXTXA txarangare-kin herri poteoa
21:30 Afaría

4 ZAPATUA

11:00 LAGUNAK pilota
elkarteak antolatuta, pilota partiduak Plaza Handian
12:00 Aurrekua Ama Birjinari. Iparraldeko pilotariei hainbeste urtetan Errosario kaleko jaietan parte hartu izanagatik eskerrak emateko, oroigarria emango diote Enrike Gil ordezkariari.

5 DOMEKA

11:00 Meza Errosario kalean hildakoen oroimenez.

6 ASTELEHENA

17:00 Umeentzako jolasak
19:00 Batukada

7 MARTITZENA

17:30 Zezentxoak
19:00 Meza eta Errosarioa Parrokian.
20:00 Salbea eta luntxa



Zerikasi

IKASTAROAK

Tenis ikastaroa

Norentzat: Bost urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Elebiduna
Hasiera data: 2008-09-30/ Bukaera data: 2009/07-30
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kiroldegian kontsultatu

Lasakuntza

Gaia: Gorputzeko tentsioa kentzeko ikastaroa
Hizkuntza: Zehazteko
Hasiera data: 2008-09-01 / Bukaera data: 2009-06-30
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatzeko

Argazkigintza digitala

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Erderaz
Hasiera data: 2008-10-14 / 2008-11-20
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Urriak 8

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

Lanbroa



Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



klínika kortazar
Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Te. 943 700 700 / 943 203 835

txatxaran



dj barrio

Mikel Galindok hamazortzi urte dauzka, baina lagunek DJ Barrio deitzen diote. Izan ere, musika munduan buru belarri sartuta dago. Orain dela gutxi hasi da pintxatzen, eta lan bikaina egiten duela esaten dute entzun dutenek. Disko artean ordu asko ematen ditu.

“Guassen pintxatzea gustatuko litzaidake”

Zergaitik daukazu DJ Barrio izena?

Nire lagunengatik. Musika altu jartzen nuen eta auzoan entzuten zen. Lagunek jarri zidaten izen hori eta gustatu egin zitzaidan. Gainera, mundu horretan sartzen nau.

Eta noiz hasi zara pintxatzen?

Aurten. Abuztuan esan zidaten gaztelekuan jai bat egiteko.

Baina lehenagotik ere egingo zenituen nahasketak...

Nahasketak etxean bai. Bestela batzuetan CDa eraman eta nik ipintzen dut musika lagun artean.

Zein da zure estiloa?

Nire estiloa? Elektro, dance edo tekno. Hiru horiek. Beste batzuk ere sartzen ditut, baina gutxi.

Zure inguruan badago pintxatzen duenik?

Lagun-lagunak... Lagunak badauzkat, ez dira betiko lagunak, baina ezagunak eta horrelakoak bai.

Zein da zure ametsa?

Hemen, Guassen pintxatzea gustatuko litzaidake. Nire aitak han lan egin zuen eta badakit zein den jendea, jefea eta dena. Baina oraindik ez nago ondo prestatuta.

Zer da zailena?

Bi gauza dira zailenak: bata erritmoa da, eta bestea momentuan nola pintxatu behar den asmatzea, efektuak jartzea...

Zer behar da DJ ona izateko?

Dirua. Hori printzipala. Gero praktika asko behar da eta jende onak non pintxatzen duen jakitea. Norbaitek Txixarron pintxatzen badu hara joatea, entzutera, jaietara...

Orduan aparailuak garestiak dira.

Bai. Uste dut mahai guztiak balio duela 1.300 euro inguru, baina nire lagun batek denda bat aurkitu du eta 500 eurotan salgai dituzte. Ea nola dagoen.

Eskratxeatzen ikasi duzu?

Gutxi gorabehera. Nire lehenagusua mundu horretan dabil eta zerbait erakutsi zidan.

LUDOTEKAKO EKINTZAK

**LUDOTEKA
LH4-6 IKASTURTEETAKO
BAZKIDEENTZAT
IREKITA EGONGO DA.**

Bihar, zapatua,
16:30etik 19:30era


GAZTELEKUKO EKINTZAK

**Gaur, ostirala,
PIROPO LEIHAKETAKO
SARI BANAKETA**

Bihar, zapatua,
08-09 ikasturteari ongi-etorri festa:
**MERENDOLA ETA ARGAZKI
EMANALDIAK**



TEXTIL HOGAR · KOLTZOI DENDA LAGUNAK



dominóeffect

EZAUGARRIAK:

- Hezetasuna gordetzen du, azkarrago lehortzeko.
- Koltzola errazago aireberritzen da, hiru dimentsiotako ehunaren bidez.
- Gorputza koltzotik bananduta gelditzen da eta, beraz, gure gorputzaren eta koltzoiaren artean airea pasatzen lagatzen du.

LAGUNAK


24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN SANTA KLARA 13 zkia. (Elgoibar)

BERRIA!!



Etxebizitza obra bertatik ikusteko aukera paregabea

1. PISUA + TRASTEROA
- 2 logela eta bista paregabeak
- 100 m² terraza ederrak
- 216.000 €

- Duplexa terrazarekin
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Garaje eta trastelekuak

INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar) - Tif.: 615 758 480



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpa).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez geratzea bazara, 570 € jasoko duzu; italoakirik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, baina instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 emandore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandararen gaineko edozein aldaketak, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetatik baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin harikuntza alda egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



naturgas
energia